

# Ezpalak

JON TORNER

**Artemio Zarco** idazle eta abokatu donostiarrak *Ese final que os acecha* nobela kaleratu du. Genero beltza eta nobela pikareskoaren arten sailkatu dute Zarcoren zortzigarren eleberria. Istorioak Donostiako Boulevardeko Barandiaran kafetegian du abiapuntua.

**Bloody Hotsak** zigilua sortu dute Bloody Mary biniloak saltzen dituen Irungo dendako arduradunak eta Gaztelupeko Hotsak disko-etxeak. Rock and roll musikaz osatutako biniloak kaleratuko ditu gehienbat zigilu berriak.

**La Strada** izeneko antzerki taldea sortu dute Lizarran. Conni Rosnerrek zuzentzen du konpainia eta aktoreak Luis Arguiñáriz, Inés Bengoa, Ainhoa Luis Alsa, Kristina Eizmendi eta Javier Landaburu dira. Lizarrako Ikerketa Zentroaren inguruan sortu da taldea, eta ikerketa horien emaitzak zabaltzea dute helburu. Uztailaren 16an izango *Finis Terrae* obra estreinatuko dute Lizarrako Foruen plazan.

**Asier Zabaleta** koreografo eta dantzariak *El agujero del avestruz* (Ostrukaren zuloa) obra eskainiko du Donostiako Antzerki Ferian ([www.antzerki.com](http://www.antzerki.com)), hilaren 14an. Ertza konpainiaren lan horrek beldurra du hizpide. Gazteszenan izango da ikusgai, arratsaldeko 18.00etan.



**Axi Olano**k Gasteizko Alde Zaharreko Gora eta Hala Bedi tabernetako hormetan jarri ditu ikusgai *Zabormila* bildumako argazkiak. Bilduma hori mendira egindako txangoetan aurkitutako zaborren irudiek osatzen dute. Interneten ere jarri ditu ikusgai Olanok: [www.blogak.com/zabormila](http://www.blogak.com/zabormila).

**Julio Medem**ek abuztuan estreinatuko du *Caótica Ana* filma. Bestalde, Tiniéblas Gonzalez eta Gorka Merchan euren lehen film luzeak grabatzen ari dira egunotan. Tiniéblas Gonzalez zuzendari arabarrak Bilboko metroan grabatu du *Alma sin dueño* lana. Gorka Merchanek berriz, Hernanin, Erreterian, Hondarribian eta Tolosan egingo ditu *La casa de mi padre* laneko grabaketak. Merchan euskaraz eta gaztelaniaz filmatzen ari da.

## Alberto Dureroren 165 grabatu ekarri dituzte Guggenheimera



Bilboko Guggenheim museoan Alberto Durerok (1471-1528) pintore, grabatzaile eta arte teorialari alemaniarraren 165 kobre eta zur-grabatu jarri dituzte ikusgai. Obra guztiak Alemaniako Staedel museoeko bildumakoak dira eta 1971az geroztik aurrenekoz erakutsi dituzte. Ezkerrekoa *Adan eta Eva* izeneko grabatua da. 1504an argitaratu zuen Durerok. Bertan, arte klasikoaren ereduari jarraituz, giza irudiaren proportzio idealak finkatzen saiatu zen.

## Joshua Redman, Henri Texier Strada eta Kenny Garret Baionako Jazzaldian

**JOSHUA REDMAN** saxofoi jotzaile estatubatuarrek eskainiko du Baionako La Ruec au Jazz jaialdiko lehen eguneko kontzertu nagusia, uztailaren 12an, Baiona Ttipiko Elkartetxean. Kontzertua iluntzeko 21.00etan hasiko da eta bertan *Back East* izeneko diskoa aurkeztuko du Dewey Redman saxofoi jotzaile handiaren semeak. Jaialdiak iraungo duen hurrengo bi egunetako emanaldi nagusiak Henri Texier Strada Sextet taldeak eta Kenny Garrett saxofoi jotzailearen bandak eskainiko dituzte, leku eta ordu berean. Hiru kontzertu horiek ordainduzkoak izango dira (12-14 euro), baina gainerakoak ez. Baionako kaleetan, Pasteur plazan eta Gaskoietan hainbat emanaldi izango da uztailaren 12tik 14ra bitartean. Egitarau osoa [www.laruecau-jazz.com](http://www.laruecau-jazz.com) web gunean kontsulta dezakezue, euskaraz eta frantsesez.

**Ur Apalategik *El País***: «Hel-dutasunera igarotzeko, euskal literaturak bere gainetik kendu behar izan du urteetako ardura politikoa eta linguistikoen zama; eta horren ondorioz, Atxaga eta bere belaunaldiaren garaian, gaurdaino dirauen beste tabu bat sortu da: zeure burua idazletzat jotzen baduzu, ezin duzu adierazi esplizituki abertzalea zarela, literaturtasuna ukatzea nahi ez baduzu».

**Judith Monterok *Berrian***: «Plazan abestu behar duen bertsolariari ausarta izatea eta bere buruarengan konfiantza izatea eskatzen zaio, eta jarrera oldar-

korra. Neskei, ordea, ez zaie heziketa hori ematen, gure aurka armatzen gaituzte, dena bi aldiz pentsarazten digute, diskretuak izateko hezten...».

**Kepa Sojok *Deian***: «Zinema serioa oraindik egiten da. Kontua da ikuslearengana iristen den zinema oso komertziala dela. Gaur egun, film bat ikustera doanean 'palomiten zinema' eskatzen du jendeak. Ikusiko dugu Zinemaren Legearekin zer gertatuko den. Film espainiarrak eta europarrak zinema aretoetan eskaintzeko aukera emango du. Horri esker kalitate aldetik jauzi bat eman ahal izango da».

## Maisua eta maisuaren maisua

*Viajes con Heródoto*, Ryszard Kapuscinski  
(Anagrama 2006)

Pertsona ona behar zuen idazten zituenak idazteko. Aurrekoak irakurrita horixe sinetsita geunden, on-ona zela Kapuscinski. Hori ustea; ziurtasuna: erreportari eta idazle bikaina zena. Kapuscinskik berak ere esan zuen gainera: *Zinikoez ez dute balio ofizio honetarako*.

Bihotz-altxagarria da liburu hau. Izan ere bertan deskribitu dugu guk Kapuscinskiri hartutako susmoa barruntatzen duela Kapuscinskik Herodotogatik: "Seguru gizon ona izan zela, patxadoso, hurkoari laguntzeko prest beti, ezezagunek horrelakoen aurrean baino ez baitituzte agerian uzten misterioak (...) Jendeak ikusi eta deskribatzeko moduagatik, Herodotok gizon onbera eta ulerkorra behar zuen, zintzoa eta irekia. Ez du ez amorru ez gorrotorik".


Herodoto gidari –"Historiako lehen erreportaria"–, mendebalde 'demokratikoaren' eta ekialde 'barbaroaren' gatazka orain 2.500 urte gaur bezain gordina zela ikasi dugu. Jauzika 50eko hamarkadan Kapuscinskik, nora eta Indiarra joateko, lehenbizikoz muga zeharkatu zueneko bizi dugu. "Basoko animalia hirian legez, beldurtuta" gaxte errukarria apurka zailduko da.

Txinan eta, gero, Afrikan urteetan ibili ostean jabetu zen oke-rrako bidetik zihoala. Oke-rrako bidea baita irudi ikusgarrien peskizan ibiltzea. Irudirik ikusgarriena ere ez baita nahikoa parapeto, errealitate ulertzeko ahalegina ordezkatzeko. Orduan hasi bide zen jendearekin hitz egiten, beraien aurpegiei eta jokaerei erreparatzen, zoko-miatzen eta irakurtzen, dena zerbait ulertzeko ahaleginean.

Sendagairik ez duen bidaiatzeko grinaren birusa izan daitekeenaz ere ematen du hipotesia: "Txunditzeko beharra. Agian txunditzen ez den pertsona hutsa dago barrutik; errea du bihotza. Dena *déjà vu* somatzen dutenengan ederrena hil da: bizitza beta".

Bidaia, gerra, historia eta antropologia orritan bildutako oparia: Kazetaritza eta komunikazioaz ikasgai ederra.

JON ARTANO



Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun  
Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718  
e-posta: info@hotelatalaia.com  
web orria: www.hotelatalaia.com